

argazkigintza > argi-ITZALAK

Denak **balio** du

Joseba Ibarra argazkilaria 70eko hamarkadan hasi zen argazkiak egiten. Orduetik hona denetik probatu du, baina ez da aspertu.

IDIOIA ETXEBERRIA

Edozer bihur daiteke argazki. Edozer, Joseba Ibarra bilbotarra inguruan bada-bil. Pertsonak, eraikinak, animaliak. Mugimenduak, begiradak. Formak, marrak. Hiru hamarkada baino gehiago daramatza argazkiak ateratzen, eta denetik egin du: «Paisaiak, erretratuak, infragorriak, Polaroid marraztuak... Esperimentatzea gustatzen zait». Eta ez du aukerarik galtzen: kamera gertu du beti, edonora doala ere. Asteburuan, eta aste barruan: «Komertziala naiz, eta kamera konpaktua eramaten dut nirekin. Duela gutxi, adibidez, Gasteiz inguruan lan egitea egokitu zitzaidan; pare bat sandwich erosi, eta Urbasara joan nintzen».

Mutil koskorra zela izan zuen lehen harremana argazkigintzarekin: argazki denda batean hasi zen lanean, 16 bat urterekin. «Denbora librean saltsan ibiltzen nintzen, negatibo bila, gero neuk positibatzeko». Baina dezente geroago hauspotu zuen zaletasun hori. «1972an erosi nuen nire lehen reflex kamera. Orduan hasi nintzen ikasten, eta lehiaketetan parte hartzen». Sari ugari lortu ditu.

«Orain, egiten dudana guztia digitala da». Lehen, gela iluna ere ba-zeukan. «Baina dagoeneko ez dut laborategirik etxean. Galdakaotik Bilbora joan naiz bizitzera, eta ez

■ nortasun aqiria

■ **Izena:** Joseba Ibarra.

■ **Jaio:** Bilbon, 1942an.

■ **Ogibidea:** Saltzailea.

■ **Argazkilaritza:** 70eko hamarkadan hasi zen. Bizkaia Klub Zine Foto elkarteko kidea da, eta AFIAP titulua du.

■ **Sariak eta erakusketak:** Aspaldi ekin zion lehiaketetan parte hartzeari. Egun, batez ere nazioartekoetan dihardu; 300dik gora argazki onartu dizkiote. Bizkaiko Nazioarteko Lehiaketan Ohorezko Saria irabazi zuen iaz, eta aurten erakusketan egin du horrekin lotuta, Bilbon.



■ **www.federacionfotovasca.org**

dut tokirik». Beharrik ere ez: «Egia esan, ez dut faltan sumatzen. Egingdako lana argitara emateko bitarteko bat zen, eta orain ordenagailua da laborategia. Atzera begiratu gero, badu bere xarma paper zurian irudia poliki-poliki agertzen ikusteak: lehenengo zertzelada batzuk, eta gero dena. Baina hain ikusia dugu, guretzat aspaldi utzi ziola magia izateari!», dio berriz. Ordenagailuan gauza bera egin dezake, eta erosoago: «Hasierako argazkia zirriborro bat da; gero hori perfektionatu egin behar da. Zure zigilua jarri behar diozu».

Kolorea eta zuri-beltza, biak erabiltzen ditu. «Biak gustatzen zaizkit, baina zuri-beltzak xarma berezia du. Kolore erakargaririk ez duenez, segituan igartzen da argazkia txarra bada. Zailagoa da zuri-beltzeko irudiek asebetetzea».

Argazkilaritzaz gainera, futbola eta zezenketak gustatzen zaizkio Ibarriari. «Eta Athleticen bazkide naiz, nola ez! Gure etxean denok gara futbolzaleak».



Burtziketa bateko irudia, mugimendu handikoa.



Eguzkiloreak. Zuri-beltzeko argazkia.



Artea. Erdi Aroko gaztelua.



Pasaia. Polaroiden moldatutako argazkia.